TOLOSAKO UDALA

2024H1090001
JM24_040

# LURRALDE BATZORDE INFORMATIBOAK ONARTUTAKO IRIZPENA

| | |
|---|---|
| UNITATEA | Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoko departamentua |
| XEDEA | TOLOSAKO HAPOko ONDAREAREN UDAL-KATALOGOKOAN HIRIGUNEKO HAINBAT TXALET TIPOLOGIAKO ERAIKINAK, BIZITEGI-ERAIKIN KOLEKTIBO ZEIN ERAIKIN INSTITUZIONALAK BARNERATZEKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA ETA, HORIETAN, HIRIGINTZAKO LIZENTZIA-EMATEAK ETETEA. |

**I K U S I R I K**

## I.- AURREKARIAK

2009ko martxoaren 3an, Udalbatzak ohiko osoko bilkuran behin betiko onespena eman zion Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (aurrerantzean, HAPO) testu bateginari. Gaur egun indarrean dagoen Ondarearen Katalogoa HAPOren parte da, 3. Dokumentua, hain zuzen ere.

Indarrean dagoen dokumentu honek, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 76. artikuluan ezarritakoari jarraiki, funtsean, beren balioa eta interesa kontuan harturik babestu behar diren ondasun artifizialak zein naturalak identifikatzea zuen xede.

Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra behin betiko onartu eta gero, 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena, onartu da. Lege berri honen helburu nagusia kultura-ondarearen kudeaketa integrala bermatzea da, hau da, alde batetik, ondarea identifikatu, dokumentatu, ikertu, kontserbatu eta babestuko duen kudeaketa, baina horrekin batera haren transmisioa, sustapena eta balio-nabarmentzea bermatzeko konpromisoa agerian utziko duena

Eta Legearen zioen azalpenean adierazten den moduan, Kultura-balioak aldakorrak direnez, ondarearen kontzeptua bera etengabe eraikiz doa, eta hura osatzen duten elementuak ere mudakorrak dira eta ekarpen berriak hartzeko irekita daude. Hala, euskal kultura-ondareari buruzko lege berri bat idazteko beharra ikusi zen, azken urteotan kultura-ondarearen kontzeptualizazioan gertatu den bilakaera ordenamendu juridikoan txertatzeko, zeren ondare horren azterketa- eta jardun-eremua nabarmen zabaldu baita.

Euskal kultura-ondareari buruzko legeak zehazten ditu kultura-ondarearen arloan euskal administrazio publikoen hiru mailetako bakoitzari dagozkion jarduerak, eta jarduera horien koordinazioaren ardura izango duen organoa sortzen du. Bestalde, hiru babes-maila bereizten dira, ondasunak dituen kultura-balioen garrantziaren arabera: babes berezia duten kultura-ondasunak, babes ertaina duten kultura-ondasunak eta oinarrizko babesa duten kultura-ondasunak (indarreko udal-plangintza urbanistikoko katalogoetan sartuta daudenak dira).

ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2022tik gaur arte *"Asociación Áncora para la Conservación del Patrimonio"*k udalari hainbatetan eskatu izan dio Ondarearen Udal-Katalogoa berritzeko eta bertan gaur egun babesik ez duten hainbat ondasun barneratzeko.

2022ko abenduaren 14an, Tolosako Udalak, bere udal-mugartean dagoen kultura-ondareari buruzko informazioa eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzari. 2023ko urtarrilaren 12an jaso zen Eusko Jaurlaritzatik udalak aurretiaz eskatutako Tolosako udalerriko kultura ondareari buruzko informazioa. Bertan, gaur egun katalogoan barneratuta ez dauden ondasun asko zerrendatzen dira.

Bestalde, 14/2023 Legea, azaroaren 3koa Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea Aldatzeko indarrean sartu berri da. Lege honen zioen azalpenean jasotzen da Legearen xedea zein den: batetik, kultura-ondasun higiezin bat oinarrizko babes-mailan sartzeko irizpideak eta udal-katalogoak egoera berrira egokitzeko aldia zehaztea; eta, bestetik, energia-iturri berriztagarriak alternatiba jasangarri erreal gisa gero eta gehiago erabiltzen direnez, beharrezkoa da Euskal Kultura Ondarearen Legea aldatzea, iturri horiek ondareko ondasun higiezinetan sartzeko, bereziki bizitegi-izaerakoetan, energia-eraginkortasuna ondasun horien ondare-balioekiko errespetuarekin orekatuta lortzeko, eta higiezin horiek erabiltzeari uko egitea saihesteko, energia eskuratzeko kostu handiagoa dela eta.

Tolosako Udalak udal-mugartean dagoen kultura-ondarea babesteko asmoz, orain gutxi urrats bat eman du. Izan ere, Udalbatzak, 2024ko maiatzaren 30ean, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, behin betiko onespena eman dio Tolosako HAPOko Ondarearen Udal-Katalogoaren aldaketari (GAO 2024/06/13 114.zk.); eta, honela, San Frantzisko pasealekua 37 zenbakian dagoen ≪Villa Sagrado Corazón≫ eraikinari udal-babesa eman zaio.

**K O N T U A N   H A R T U R I K**

## II.- AZTERKETA TEKNIKO-JURIDIKOA

### II.1.- TXOSTENAREN HELBURUA

Txosten honen xedea da aztertzea Tolosako HAPOko ondarearen udal-katalogoan hiriguneko txalet tipologiako eraikinak, bizitegi-eraikin kolektibo eta eraikin instituzionalak barneratzeko egokitasuna; eraikin horien azterketa zehatza eta dagokion fitxa osatzeko eta, honela, dagokien babes-maila eta babestutako elementuak zein erregimena zehazteko.
Txosten honen helburua da ere aztertzea eraikin horiei eragiten dieten hirigintzako lizentziak urtebetez eteteko aukera.

### II.2- ALDAKETAREN BEHARRA ETA JUSTIFIKAZIOA

6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearenak adierazten duen moduan, kultura-balioak aldakorrak direnez, ondarearen kontzeptua bera etengabe eraikiz doa, eta hura osatzen duten elementuak ere aldakorrak dira eta ekarpen berriak hartzeko irekita daude.

ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

Bestalde, aldaketa sozial bat ere egon da azken urteotan ondare kulturalari dagokionez eta iritzi publikoaren sentsibilitatea gero eta handiagoa da.

Udal-katalogoa indarrean egon den ia 15 urte hauetan, ikusi da hiriguneko bizitegi-arkitektura historikoko eraikinen tipologiarekin parekatutako eraikin jakin batzuk badaudela Tolosako udalerrian, eta horiek ez daudela katalogoan sartuta, interes arkitektonikoa duten arren, garai edo korronte arkitektoniko jakin bateko hizkuntza jakin baten adierazgarri direlako edo ezaugarri esanguratsuak dituztelako.

Ondorioz, gizarte-erronka hau konpondu behar da hiri-tramaren balioei eusteko, kultura-ondare historikoaren babes-katalogoan hiriguneko txalet tipologiako eta bestelako bizitegi-eraikinak sartuta, baldin eta aurrez aurre duten lekuari paisaia-kalitatea ematen dioten berezitasunak eta erreferentziazko elementuak dituzten fatxadak dituztelako edo hiri-tramaren gainean ezartzean duten protagonismoa kontuan hartuta.

Aipatu beharra dago azken urtetan tipologia honetako bizitegi-erabilerako eraikinak Udaleko Ondarearen Katalogoetan barneratzeko prozedurak aurrera eraman dituztela Gipuzkoako beste udalerri batzuetan; esaterako, Irungo Udalak 2022ko abenduan onartu zuen Arkitektura Ondarearen Aldaketa Puntuala (bereziki tipologia honetako bizitegi-eraikinak barneratzen dituena) eta Donostiako Udalak Donostiako hirigintza ondare eraikia babesteko plan bereziaren berrikuspena onartu zuen 2021ean (bertan tipologia honetako hainbat eraiki barneratu direlarik).

## II.3.- ALDAKETAREN HELBURUA

Aurreko guztia kontuan hartuta, eta aintzat harturik Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzatik 2023ko urtarrilaren 12an jasotako informazioa, hainbat eraikin Tolosako HAPOko ondarearen udal-katalogoan barneratzea proposatzen da; zehazki, udaleko arkitektoek proposatutako hiriguneko txalet tipologiako 19 eraikin, bestelako bizitegi-eraikinen kolektiboko 25 eta 3 eraikin instituzional; guztira 47 eraikin. Konkretuki, I eta II eranskinetan zerrendatutakoak dira.

## II.4- INDARREAN DAGOEN KATALOGOA

Aurrekarietan aipatu den bezala, 2009ko martxoaren 3an, Udalbatzak ohiko osoko bilkuran behin betiko onespena eman zion Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren testu bateginari. Gaur egun indarrean dagoen Ondarearen Katalogoa HAPOren parte da, 3. Dokumentua, hain zuzen ere.

Ondasun horiek hiru kategoriatan banatzen dira: udalerriko hirigintza-ondarean barne hartzen diren ondasunak eta elementuak, udalerriko ondare arkeologikoan barne hartzen diren ondasunak eta elementuak eta espazio eta elementu naturalak. Katalogoak kategoria bakoitzeko zerrendak barneratzen ditu.

Era berean, dokumentu honetan azaldutako aurreikuspenak Plan Orokor honen "2.1. Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuko seigarren tituluan (89. artikulua eta hurrengoak) ezarritakoekin osatzen dira.

ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

HAPOko Ondarearen Katalogoan honako sailkapena dago jasota:

**1.- Udalerriko hirigintza-ondarean barne hartzen diren ondasunak eta elementuak.**

Beren balio historikoa eta/edo arkitektonikoa kontuan harturik, udalerriko hirigintza-ondarea osatzen duten ondasun eta elementuen multzoa da.

Kategoria honetan, era berean, honako (azpi)kategoria hauek bereiz daitezke:

≪**I. maila.**
- Monumentu multzoak.
- Euskal Autonomia Erkidegoak izendatu dituen monumentuak.
- Autonomia-erkidegoak babestutako beste ondasun higiezin batzuk.

Zehazki, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko monumentu edo monumentu multzo izendatzeko proposatutako ondasunak dira.

**II. maila.**

Udalak babestutako ondasun higiezinak.

**2.- Udalerriko ondare arkeologikoan barne hartzen diren ondasunak eta elementuak.**

Beren balio arkeologikoa kontuan harturik, udalerriko izaera horretako ondarea osatzen duten ondasunen multzoa da.

Kategoria honen barruan, era berean, honako modalitate hauek bereizten dira:
- Monumentu multzo kategoriarekin kalifikatutako kultura-ondasunen erregistroan inskribatutako zona arkeologikoak.
- Euskal Kultura Ondarearen inbentario orokorrean monumentu multzo kategoriarekin inskribatutako zona arkeologikoak.
- Ustezko zona arkeologikoak.
- Euskal Autonomia Erkidegoak Monumentu / Monumentu Multzo gisa izendatzeko proposatutako zona arkeologikoak.

**3.- Espazio eta elementu naturalak.**

Aurrekoei hainbat espazio eta elementu natural gehi dakizkieke≫.

**II.5- PROPOSATUTAKO ZERRENDA ETA INDARREAN DAGOEN ANTOLAMENDUAREN ERAGINA**

Aurretik adierazi den moduan, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzatik jasotako informazioa oinarri hartuta, udaleko arkitektoek egindako proposamenaren ondotik, bi zerrenda osatu dira. Ondoren, eraikin horien azterketa zehatza eta dagokion fitxa osatuko da bakoitzari dagokion babes-maila eta babestutako elementuak eta erregimena zehazteko.

I eta II eranskinetan zerrendatutako 47 eraikinetako 39 eraikin finkatuta daude Tolosako HAPOren arabera. Horietako 8, ordea, ordenazioz kanpo deklaratuta daude:

ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

- Villa Maria, Ibarralde 3 eta 1 etxeak (azpiesparrua: «6.2 Ibarralde kalea, 1, 3 eta 5»)
- Ibai-gain eta Villa Maria Juanita (azpiesparrua: «14.1 Kondeaneko aldapa, 8 eta 10»)
- Kondeaneko Aldapa 30 etxea (azpiesparrua: «14.2 Kondeaneko aldapa 30»)
- San Frantzisko 20 eta 22 etxeak (azpiesparrua: «12.3. San Frantzisko 20-22»)

Azpiesparru horietako arau partikularretan honakoa jasotzen da gauzatze erregimenari dagokienez:

- **<u>«6.2 Ibarralde kalea, 1, 3 eta 5» azpiesparrua</u>**

***3. Gauzatzeko erregimen juridikoa eta hirigintza alorrekoa.***
*3.1. Jarduteko baldintzak.*
*(…)*
*B. «6.2 Ibarralde kalea, 1, 3 eta 5», «6.4 Izaskungo Aldapa. Santa Klara» (azpi)esparruek jardun integratuko esparru independentea osatzen dute.*
*(…)*
*3.2. Urbanizatzeko Jardun Programak formulatzeko eta programatzeko berariazko baldintzak.*
*A. Aurreko «3.1.A» eta «3.1.B» idatz-zatietan aipatu diren jardun integratuko esparruak dagokien Urbanizatzeko Jardun Programa bereiziaren mende izango dira.*
*B. Programa horietako bakoitzak dagozkion gauzatzeunitateak mugatuko ditu, eta bidezko jardun-sistema zehaztuko du, besteak beste.*
*C. Programa horiek honako gehieneko epeetan sustatuko dira:*
*— «6.1 San Kosme eta San Damian» azpiesparruak osatutako jardun integratuko esparruari dagokion programa: Sei urte Plan Orokorra onartzen denetik hasita.*
***— «6.2 Ibarralde kalea, 1, 3 eta 5» azpiesparruak osatutako jardun integratuko esparruari dagokion programa: Bi urte Plan Orokorra onartzen denetik hasita.***
*(…)*

**Aipatutako epeak ez dira bete; azpiesparrua ez da garatu.**

- **<u>«14.1 Kondeaneko aldapa, 8 eta 10» eta «14.2 Kondeaneko aldapa 30»</u>**

***3. Gauzatzeko erregimen juridikoa eta hirigintza alorrekoa.***
*3.1. Jarduteko baldintzak.*
*A. «14.1 Kondeaneko Aldapa, 8 eta 10» (azpi)esparrua. Jardun integratuko esparru bakarra eta independentea osatzen du (azpi)esparru honek.*
*B. «14.2 Kondeaneko Aldapa, 30» (azpi)esparrua. Jardun integratuko esparru bakarra eta independentea osatzen du berez (azpi)esparru honek. Edonola ere, Kondeaneko Aldaparen azpitik planteatzen den bide berriaren proiektuaren eraginpean dauden lursail guztiak barne hartzen dira edo atxikitzen zaizkio.*
*(…)*
*3.2. Urbanizatzeko Jardun Programak formulatzeko eta programatzeko berariazko baldintzak.*
*A. Aurreko «3.1» idatz-zatian aipatzen den jardun integratuko esparru bakoitza -txertatzen*

ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

*zaizkion zein atxikitzen zaizkion lur guztiekin- dagokion Urbanizatzeko Jardun Programaren mende izango da.*
*B. Programa horiek honako gehieneko epeetan sustatu eta bideratuko dira:*
***— «14.1. Kondeaneko Aldapa, 8 - 10» azpiesparruak osatutako jardun integratuko esparrua: Sei urte Plan Orokorra onartzen denetik hasita***
***— «14.2 Kondeaneko Aldapa 30» azpiesparruak osatutako jardun integratuko esparrua: Lau urte Plan Orokorra onartzen denetik hasita.***
*(…)*

**Aipatutako epeak ez dira bete; azpiesparrua ez da garatu.**

- <u>**«12.3. San Frantzisko 20-22»**</u>

***3. Gauzatzeko erregimen juridikoa eta hirigintza alorrekoa.***
*3.1. Jarduteko baldintzak.*
*(…)*
*C. «12.3 San Frantzisko Pasealekua, 20-22» (azpi)esparrua. Jardun integratuko esparru bakarra eta independentea osatzen du (azpi)esparru honek.*
*(…)*
*3.2. Urbanizatzeko Jardun Programak formulatzeko eta programatzeko berariazko baldintzak*
*(…)*
***— Plan Orokor hau onartu eta sei urteko epearen barruan formulatu beharko da «12.3. San Frantzisko pasealekua, 20 - 22» azpiesparruak osatutako jardun integratuko esparruan sustatu beharreko Urbanizatzeko Jardun Programa.***

**Aipatutako epeak ez dira bete; azpiesparrua ez da garatu.**

## II.6.- HIRIGINTZAKO LIZENTZIA-, ONARPEN- ETA BAIMEN-EMATEAK ETETEA.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea aldatzen duen abenduaren 21eko 18/2023 Legearen arabera, 85. Artikulua jarraian dagoen bezala geratzen da idatzita:

***«85. artikulua.– Hirigintzako lizentzia-, onarpen- eta baimen-emateak etetea.***
*1.– Hirigintzako planak egiteko edo, hala badagokio, aldatzeko edo berrikusteko, hirigintzako planak hasieran onesteko eskumena duten administrazioek erabaki ahal izango dute eremu edo erabilera jakin batzuetarako hirigintzako onarpen, baimen eta lizentzia guztien ematea etetea, gehienez ere urtebetez, aurrerakina egiteko erabakia hartzen denetik eta hasierako onespenaren erabakia hartu arte. Etete hori iraungitzen da hura hartzeko gehieneko epea igarotze hutsagatik, eta, indarrean badago, hasierako onespenaren ondoren erabakitzen den etetearekin ordeztuko da.*
*2.– Hirigintzako planak hasieran onesteko erabakiak etendura zehaztuko du, bi urtekoa plan orokorrei badagokie eta urtebetekoa gainerako kasuetan, eremu zehatzetan edo erabilera zehatzetarako edozein onarpen, baimen eta lizentziak emateari dagokionez, aurreikusitako xedapen berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea badakarte. Etete hori iraungitzen da hura hartzeko gehieneko epea igarotze hutsagatik edo, hala badagokio, dagokion hirigintza-planaren behin betiko onespena argitaratzean.*

ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

*3.– Eragingarria izan dadin, aurreko 1. eta 2. paragrafoetan aipatzen den etete-erabakia dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurralde historiko horretako zabalkunde handieneko egunkarian edo egunkarietan argitaratu beharko da.*
*4.– Etenduraren eragina aurreikusitako edozein kasutan iraungitzen denean, ezin izango da beste etendurarik ezarri, eremu berean eta helburu bererako, bost urte igaro arte.*
*5.– Etendura argitaratu aurretik behar bezala eskatutako lizentzien edo baimenen eskatzaileek eskubidea izango dute proiektuen kostuengatiko kalte-ordainak jasotzeko. Ez da proiektuaren kostua itzultzeko eskubiderik izango, baldin eta eskaera zuzenbidearekin bat ez badator, eskaera egiten den egunean indarrean dauden araudiaren edo lurraldeko eta hirigintzako antolamenduaren aurkakoa izateagatik.*
*6.– Proiektuaren kostua itzultzea eskatzeko eskubidea eten egingo da, harik eta, kasuan kasuko plana behin betiko onetsi ondoren, proiektu hori planaren zehaztapenekin bateraezina dela egiaztatzen den arte».*

Artikulu horren arabera, beraz, hirigintzako planak, edota horien aldaketak edo berrikuspenak, hasieraz onetsi aurretik, aukera dago eremu edo erabilera jakin batzuetarako hirigintzako onarpen, baimen eta lizentzia guztien etetea erabakitzeko; gehienez ere urtebetez.

Kasu honetan Tolosako HAPOko Katalogoaren aldaketaren hasierako onespena eman aurretik I. eta II. eranskinetan zerrendatutako eraikinen fitxak osatu nahi dira eta, ulertuta katalogoak tresna arau-emaileak direla, babes berezia merezi duten arkitektura-edo kultura-balioak dituzten elementuak ziurtatzeko eta defendatzeko, aplikagarria da adierazitako 85.1 artikuluan aurreikusitako etetea.

Logika bermatzaile hori berretsi izan du Auzitegi Gorenak 1983ko otsailaren 5eko eta 1987ko otsailaren 19ko epaietan, katalogoek ondarea defendatzeko eta hiri-antolamenduan txertatzeko duten helburua kontuan hartuta. Gainera, lortu nahi den helburua lortzeko guztiz beharrezkoa den kautelazko neurria da; Balear Uharteetako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2014ko urriaren 24ko epaiak gogorarazten duenez.

Beraz, kontuan hartuta egun 2/2006 Legeko 85.1 Artikuluan ezarritakoa eta jurisprudentziak Katalogoei aurreikusitako tresna arau-emaile kategoria, adierazi daiteke Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren Katalogoaren handitzeko hasierako onespena eman aurretik zehaztu daitekeela, urtebetez, eremu zehatzetan edo erabilera zehatzetarako edozein onarpen, baimen eta lizentziak eteteko erabakia.

Hala, proposatzen da urtebetez I. eta II. eranskinetan jasotako elementuak osorik eraisteko lizentziak etetea, baita fatxadei eragiten dieten baimen-emateak, zaharberritze zientifikoko edo zaharberritze kontserbatzaileko jarduketak ez badira, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak ezartzen duenari lotuta.

Urtebeteko epea izango da dagokion erabakia hartzen denetik Tolosako HAPOko Katalogoa aldatzeko hasierako onespenaren erabakia hartu arte. Hala ere, etete hori iraungi egingo da hura hartzeko gehieneko epea igarotze hutsagatik, eta, indarrean badago, hasierako onespenaren ondoren erabakitzen den etetearekin ordeztuko da.

Tolosako Udaleko Udalbatzari dagokio Tolosako HAPOko Ondarearen Udal-Katalogoan I eta II eranskinetan zerrendatutako hiriguneko txalet tipologiako eraikinak, bizitegi-eraikin

ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

kolektibo eta eraikin instituzionalak barneratzeko espedienteari hasiera ematea eta, era berean, elementuak osorik eraisteko lizentziak zein fatxadei eragiten dieten baimen-emateak eteteko erabakia hartzea.

**Tolosako udaleko Lurraldea Batzordeak, 2024ko ekainaren 19an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:**

**Aldeko botoak:** Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Kristina Pelaez Errazkin eta Aitor Agirresarobe Murgi.

**Abstentzioak:** Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**LEHENA.-** Tolosako HAPOko Ondarearen Udal-Katalogoan I eta II eranskinetan zerrendatutako hiriguneko txalet tipologiako eraikinak, bizitegi-eraikin kolektibo eta eraikin instituzionalak barneratzeko espedienteari hasiera ematea, eraikin horien azterketa zehatza eta dagokien fitxa osatzeko; dagokien babes-maila eta babestutako elementuak zein erregimena zehazteko.

**BIGARRENA.-** Fitxa horien idazketa enkargua egitea, dagokion kontratazio espedientea hastea.

**HIRUGARRENA.-** Urtebetez I. eta II. eranskinetan jasotako elementuak osorik eraisteko lizentziak etetea, baita fatxadei eragiten dieten baimen-emateak, zaharberritze zientifikoko edo zaharberritze kontserbatzaileko jarduketak ez badira, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak ezartzen duenari lotuta.

Urtebeteko epea izango da erabaki hau hartzen denetik Tolosako HAPOko Katalogoa aldatzeko hasierako onespenaren erabakia hartu arte. Hala ere, etete hori iraungi egingo da hura hartzeko gehieneko epea igarotze hutsagatik, eta, indarrean badago, hasierako onespenaren ondoren erabakitzen den etetearekin ordeztuko da.

ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

**LAUGARRENA.-** Eraginkorra izan dadin, etete-erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zein Diario Vasco, Berria eta Tolosaldeko Ataria egunkarietan argitaratzea eta, baita, udaletxeko iragarki-oholean iragarkia jartzea.

Era berean, interesdunen eskura jartzea Tolosako Udalaren web gunean [https://udala.tolosa.eus/eu/udal-administrazioa/iragarki-taula].

**BOSGARRENA.-** Erabaki hau jakinaraztea eteteak eragindako lizentzia-eskaerak aurretik aurkeztu dituzten jabeei.

Hirigintzako departamentu burua

Jone Miner Aginaga

ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

I. ERANSKINA

## 1. ARKAUTE TXALETA

**HELBIDEA:** Larramendi kalea 5

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «5.- Arramele – Arkaute.»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
218. ARKAUTE TXALETA

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 2. UZTURRE KALEA 4,6,8 eta 10

**HELBIDEA:** Uzturre kalea 4,6,8 eta 10

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «5.- Arramele – Arkaute.»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
222. UZTURRE 2-10 ETXEA



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 3. IZASKUN ETXEA

**HELBIDEA:** Ibaiondo kalea 7.

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «5.- Arramele – Arkaute.»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
224. IZASKUN ETXEA



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 4. VILLA MARIA

**HELBIDEA:** Ibarralde kalea 5.

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «6.- Santa Klara.»
**AZPIESPARRUA:** «6.2 Ibarralde kalea, 1, 3 eta 5»
**UDAL KATALOGOAN:** Ez
**ORDENAZIOZ KANPO:** Bai

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
249. VILLA MARIA



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 5. IBARRALDE 3 ETXEA

**HELBIDEA:** Ibarralde kalea 3.

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «6.- Santa Klara.»
**AZPIESPARRUA:** «6.2 Ibarralde kalea, 1, 3 eta 5»
**UDAL KATALOGOAN:** Ez
**ORDENAZIOZ KANPO:** Bai

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
250. IBARRALDE 3 ETXEA.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

**6. IBARRALDE 1 ETXEA**

**HELBIDEA:** Ibarralde kalea 1.

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «6.- Santa Klara.»
**AZPIESPARRUA:** «6.2 Ibarralde kalea, 1, 3 eta 5»
**UDAL KATALOGOAN:** Ez
**ORDENAZIOZ KANPO:** Bai

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
251. IBARRALDE 1 ETXEA.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

**7. IBAI-GAIN**

**HELBIDEA:** Kondeaneko aldapa 8

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «14.- Berazubi – Kondeaneko Aldapa (bikoitiak).»
**AZPIESPARRUA:** «14.1 Kondeaneko Aldapa, 8 eta 10»»
**UDAL KATALOGOAN:** Ez
**ORDENAZIOZ KANPO:** Bai

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
247. IBAI-GAIN.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 8. VILLA MARIA JUANITA

**HELBIDEA:** Kondeaneko aldapa 10

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «14.- Berazubi – Kondeaneko Aldapa (bikoitiak).»
**AZPIESPARRUA:** «14.1 Kondeaneko Aldapa, 8 eta 10»»
**UDAL KATALOGOAN:** Ez
**ORDENAZIOZ KANPO:** Bai

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
246. VILLA MARIA JUANITA.




ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 9. KONDEANEKO ALDAPA 30 ETXEA

**HELBIDEA:** Kondeaneko aldapa 30

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «14.- Berazubi – Kondeaneko Aldapa (bikoitiak).»
**AZPIESPARRUA:** «14.2 Kondeaneko Aldapa 30»
**UDAL KATALOGOAN:** Ez
**ORDENAZIOZ KANPO:** Bai

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
236. KONDEANEKO ALDAPA 30 ETXEA



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

**10. EGUZKI TOKI**

**HELBIDEA:** Kondeaneko aldapa 32

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «14.- Berazubi – Kondeaneko Aldapa (bikoitiak).»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua).
**UDAL KATALOGOAN:** Ez
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
241. EGUZKI TOKI.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 11. KONDEANEKO ALDAPA 7 ETXEA

**HELBIDEA:** Kondeaneko aldapa 7 (Urrutitxo)

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «15.- Bidebieta – Izaskun – Iparragirre – Kondeaneko Aldapa (bakoitiak).»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua).
**UDAL KATALOGOAN:** Ez
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez.

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
237. KONDEANEKO ALDAPA 7 ETXEA.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 12. GARMENDIA ETXEA

**HELBIDEA:** Kondeaneko aldapa 9 (Villa Itxaropena)

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «15.- Bidebieta – Izaskun – Iparragirre – Kondeaneko Aldapa (bakoitiak).»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua).
**UDAL KATALOGOAN:** Ez
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez.

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
238. GARMENDIA ETXEA.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 13. SAN FRANTZISKO 43 ETXEA

**HELBIDEA:** Pedro Tolosa pasealekua 2 (Oriaburu)

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «13.Laskoain»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua).
**UDAL KATALOGOAN:**
Euskal Autonomia Erkidegoak monumentu edo monumentu multzo izendatzeko proposatutako gune arkeologikoak.
89.- San Esteban tenplua (desagertua).
90.- San Estebango aire zabaleko hobia.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez.

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
260. SAN FRANTZISKO 43 ETXEA

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

TOLOSAKO UDALA

2024H1090001
JM24_040

## 14. SAN FRANTZISKO 20 ETXEA

**HELBIDEA:** San Frantzisko 20

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «12. San Frantzisko»
**AZPIESPARRUA:** «12.3. San Frantzisko 20-22»
**UDAL KATALOGOAN:** Ez
**ORDENAZIOZ KANPO:** Bai.

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 15. SAN FRANTZISKO 22 ETXEA

**HELBIDEA:** San Frantzisko 22

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «12. San Frantzisko»
**AZPIESPARRUA:** «12.3. San Frantzisko 20-22»
**UDAL KATALOGOAN:** Ez
**ORDENAZIOZ KANPO:** Bai.

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

## 16. VILLA SAGRADO CORAZON

**HELBIDEA:** San Frantzisko 37

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «13. Laskoain»
**AZPIESPARRUA:** «13.1. San Frantzisko 37»
**UDAL KATALOGOAN:** Espedientea izapidetzen ari da eraikin hori udal katalogoan sartzeko.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Espedientea izapidetzen ari da eraikin hori finkatzeko.

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai
264 VILLA SAGRADO CORAZON.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.




ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 17. GUADALUPE FABRIKA. LANGILEEN ETXEBIZITZA (55-1)

**HELBIDEA:** Donostia etorbidea 21

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «4.- Guadalupe – Donostia etorbidea»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai
55-1. GUADALUPE FABRIKA. LANGILEEN ETXEBIZITZA



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

## 18. GUADALUPE FABRIKA. LANGILEEN ETXEBIZITZA (55-2)

**HELBIDEA:** Donostia etorbidea 20

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «4.- Guadalupe – Donostia etorbidea»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai
55-2. GUADALUPE FABRIKA. LANGILEEN ETXEBIZITZA.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 19. IRUÑEA IBILTOKIA 2 ETA 4 ETXEBIZITZAK

**HELBIDEA:** Iruñea ibiltokia 2 eta 4

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «24. Iurre»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

TOLOSAKO UDALA

2024H1090001
JM24_040

II. ERANSKINA

## 1. BIDEZAINEN ETXEA

**HELBIDEA:** Donostia etorbidea 2

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «4.- Guadalupe – Donostia etorbidea»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai
62. BIDEZAINEN ETXEAN.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 2. ARANGUREN ETA ANTZUOLA ERAIKINAK.

**HELBIDEA:** Larramendi kalea 2-4-6

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «5.- Arramele – Arkaute»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:**
Euskal Autonomia Erkidegoak balizko arkeologia-gune izendatutako gune arkeologikoak (1997ko irailaren 11ko Erabakia).
61.- Arrameleko San Juan Bataiatzailearen tenplua (ageriko egiturarik gabea).
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai
219. ARANGUREN.
220. ANTZUOLA.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 3. BELATE PASEALEKUA 1 BIS ETXEA.

**HELBIDEA:** Belate pasealekua 1 Bis

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «9. Gorosabel»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai
230. BELATE PASEALEKUA 1 BIS ETXEA.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 4. OYARBIDE HOSTALA.

**HELBIDEA:** Felipe Gorriti plaza 1

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** « 7.- Hirigune historikoa»
**AZPIESPARRUA:** «7.1 Ezkerraldea»
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai
185. OYARBIDE HOSTALA.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 5. FELIPE GORRITI PLAZA 4 ETXEA.

**HELBIDEA:** Felipe Gorriti plaza 4

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** « 7.- Hirigune historikoa»
**AZPIESPARRUA:** «7.3. Hirigune zentrala»
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai
187. FELIPE GORRITI PLAZA 4 ETXEA




ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 6. BANCO GIPUZKOANO.

**HELBIDEA:** Eskolapioateko lorategiak 4

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «13. Laskoain.»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
295. BANCO GIPUZKOANO.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 7. SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 1 ETXEA.

**HELBIDEA:** San Frantzisko pasealekua 1

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «13. Laskoain.»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
294. SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 1 ETXEA

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 8. ZUMALAKARREGI PASEALEKUA 1 ETXEA

**HELBIDEA:** Zumalakarregi pasealekua 1

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «13. Laskoain.»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
295. ZUMALAKARREGI PASEALEKUA 1 ETXEA

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 9. ZUMALAKARREGI PASEALEKUA 3-4 ETXEA

**HELBIDEA:** Zumalakarregi pasealekua 3-4

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «13. Laskoain.»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA: Bai.**
298. ZUMALAKARREGI PASEALEKUA 3-4 ETXEA



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

TOLOSAKO UDALA

2024H1090001
JM24_040

## 10. LASKORAIN ETXEA 10-12

**HELBIDEA:** Laskorain etxea 10-12

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «13. Laskoain.»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA: Bai.**
290. LASKORAIN ETXEA 10-12



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 11. FORU ETORBIDEA 1 ETXEA

**HELBIDEA:** Foru etorbidea 1

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «13. Laskoain.»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA: Bai.**
288. FORU ETORBIDEA 1 ETXEA.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

## 12. FORU ETORBIDEA 2 ETXEA

**HELBIDEA:** Foru etorbidea 2

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «13. Laskoain.»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
286. FORU ETORBIDEA 2 ETXEA.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 13. SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 17 ETXEA

**HELBIDEA:** San Frantzisko pasealekua 17

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «13. Laskoain.»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
287. SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 17 ETXEA.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

**14. GUDARI 1 ETXEA**

**HELBIDEA:** Gudari kalea 1

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «13. Laskoain.»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
273. GUDARI 1 ETXEA.




ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 15. NAFARROA 13 ETXEA

**HELBIDEA:** Nafarroa etorbidea 13

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «13. Laskoain.»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
284. NAFARROA ETXEA 13.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 16. SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 35

**HELBIDEA:** San Frantzisko pasealekua 35.

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «13. Laskoain.»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
265. SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 35.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 17. GELTOKI 1 ETXEA

**HELBIDEA:** Geltoki kalea 1.

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «12. San Frantzisko»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
263. GELTOKI 1 ETXEA.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 18. ZUBEROA TALDEA

**HELBIDEA:** Zuberoa auzoa 1-2-3-4

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «11.- San Esteban.»
**AZPIESPARRUA:** «11.1 San Esteban. Bizitegi-garapen berria» (Plan Orokorreko aldaketa puntuala izapidetzen ari da)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez.

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
305. ZUBEROA TALDEA.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 19. SANTA KLARA 3 ETXEA

**HELBIDEA:** Santa Klara kalea 3

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «6.- Santa Klara.»
**AZPIESPARRUA:** «6.3 Santa Klara errebala»
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
186. SANTA KLARA 3 ETXEA.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 20. KONDEANEKO ALDAPA 3 ETXEA

**HELBIDEA:** Kondeaneko aldapa 1-3

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «15.- Bidebieta – Izaskun – Iparragirre – Kondeaneko Aldapa (bakoitiak)»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
248. KONDEANEKO ALDAPA 3 ETXEA.




ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 21. IGERALDE ETXEA 17-19

**HELBIDEA:** Igeralde kalea 17-19

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «15.- Bidebieta – Izaskun – Iparragirre – Kondeaneko Aldapa (bakoitiak)»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
231. IGERALDE ETXEA 17-19.




ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 22. BIZKAIA TALDEA 11-15

**HELBIDEA:** Bizkaia kalea 11-13-15

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «15.- Bidebieta – Izaskun – Iparragirre – Kondeaneko Aldapa (bakoitiak)»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
232. BIZKAIA TALDEA 11-15.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

TOLOSAKO UDALA

2024H1090001
JM24_040

**23. GRUPO ANDRA MARI**

**HELBIDEA:** Izaskungo ama plaza 1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «15.- Bidebieta – Izaskun – Iparragirre – Kondeaneko Aldapa (bakoitiak)»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
234. GRUPO ANDRA MARI.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 24. KONDEANEKO ALDAPA 14-12 ETXEAK

**HELBIDEA:** Kondeaneko aldapa 14-12.

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «14.- Berazubi – Kondeaneko Aldapa (bikoitiak)»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
244. KONDEANEKO ALDAPA 14 ETXEA.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 25. P. ZABALA KAPITAINAREN TALDEA

**HELBIDEA:** Rekalde Almirante kalea 1-2-6-7-8-9-10-15 eta Elkano kalea 3-4-5-11-12-13-14.

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «14.- Berazubi – Kondeaneko Aldapa (bikoitiak)»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
303. P. ZABALA KAPITAINAREN TALDEA.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA**: Ez



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

## 26. URETA HIGIEZINEN ELKARTEA

**HELBIDEA:** Zumalakarregi pasealekua 2 (Batzoki zaharra)

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «13. Laskorain»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai
297. URETA HIGIEZINEN ELKARTEA.



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

2024H1090001
JM24_040

**27. BIGARREN MAILAKO OSASUN-ZENTROA ETA AMA KLINIKA**

**HELBIDEA:** Nafarroa etorbidea 6 (Postetxea)

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «13. Laskorain»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
285. BIGARREN MAILAKO OSASUN-ZENTROA ETA AMA KLINIKA.

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez



ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0

TOLOSAKO UDALA

2024H1090001
JM24_040

## 28. ESKOLA ZAHARRAK

**HELBIDEA:** Rondilla kalea 34B (Musika eskola eta Euskaltegia)

**LURZORUAREN SAILKAPENA:** Hiri lurzorua.
**ESPARRUA:** «9. Gorosabel»
**AZPIESPARRUA:** Ez (Hiri lurzoru finkatua)
**UDAL KATALOGOAN:** Ez.
**ORDENAZIOZ KANPO:** Ez

**EUSKAL KULTURA ONDAREAN EAEKO ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Bai.
299. ESKOLA ZAHARRAK..

**TOKIKO INTERESEKO ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK, UDALEKO HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN BIDEZ BABESTEKO PROPOSATUTAKO HIGIEZINA:** Ez





Nork Sinatua / Firmado por: JONE MINER AGINAGA - 44134325Q
2024/06/20 09:01:41

EKS | CSV: ESKU989c7cd6-c553-41d2-bd24-799274915af0
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110